

---

# IGALIEN ATSEGIN-BARATZA

## (Etxebarria, Gatika'n)

---



Bai orixe!... Igalien atsegin baratz-ortu Paradisu lan-goxea dogu. Bere jabea Jose Etxebarria da eta urte askotan izan dedilla...

"Txone Barri" Basetxe ostean mailka zabaltzen dira gorantz zazpi ektarea margotsu, orain ogeta bost urte direala toki bertan egoan pinadiaren ordez.

Aldi orreitan Etxebarria'tar Joxe'k zeregin askotan ziarduan. Goizez lan egiten eban Basurto'ko Gaisotegian eta arratsaldez Iaurleko batzuk geiago eukitearren bere asmo edo ametsa etorkizunera bidean jarten eban.

Bost urte dira motozerra piñadira sartu zanetik, gero zulatu eban sakon mendiegale malkartasua, araneke are ta ondar kaskarrak mendiko bustin lurragaz nastauteko.

Lubaki, ondakiñak garbituz, lur leun bardiña sakondu ta aberastu eban berezko zimaurrez. Zugutzen utsa bakarik ikusten zan.

"Txone Barria" berbeak ez dauko baliotasunik, Joxe bera izlari jatorra izan ezik. Gure gogoetari dan Unamuno'k Bilbo'ri bere uriari abestian esan ebanez "berbak egiteko ta esatekorik ez"... Udagoien'eko egun oneitan, 107 zugatz-sagar desbardin ikusteak, poz-ikara emoten deutso ara doian ikusleari. Bearbada, aurtengoa izan leiteke uzta-bilketarik onena: atsegin baratz-ortu margo askoduna igalez beterik: Gabon-sagarrak Boskantoiak ta Urtebeteak, Sukarrieta ubelak, Eba sagarra, Txarba Gorria, Urdin sagarrak, Cardinal eta Erreinetak, Bella Boskop zu-riak ta Kanada'ko, de Coux Gorriak ta Errege-sagarrak.

Aurtengo udagoienetan Joxe Etxebarria'k eukan poz-arrotasuna, arrotasun jatorra esan geinke. Iñori kalterik ez dautso egiten, poz-atsegina emon baiño.

Munduko girorik onena Euzkadi'n dogu. "Lau aroko li moi-ondoak" ikusita, txangolari ikuslea konkorturik geratzen da, bere buruari itanduten deusola zelan etorri leiteken gure arteko lurraldietan urtsua dan igalia, ta barruko poz pozez Jaungoikoari esaten, "eskerrik asko Jauna". Baita guztiz bitaminaduna dan kiwiak batzuentzat txasta ez ain ona eukiarren.

Ta zer esan Joxe'k mastiko matzarretara eroaten gaituenean ta bere aotik entzun eskero: " Eztakit sinisterazo edo ikusleen **gizatalde** buruan sartuko ete dan nik esaten dautsedanean Mats -moskatelak agertzen diranean emengoak direala, ta ez uste leiken lez, Malaga edo Alikante-koak.

Gure txangolari batek Itanduten ba'deutso gure Joxe Etxebarria'ri. Baiña zuk guzti ori lortzeko ixilleko edo ezkutukiren izango dozu!

Baiba, ori ezbai barik eta lenengo jakin beadira giroa aroa, ezetasuna, egurtsa jeografi-egorea, igali-jakintza, eta orrengan eragille direanak, lurraren gertakuntza ta olakoak.

LETONA'K

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko area. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.